

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

**24. zenbakia****Data 2011-02-07****174 orria**

---

**7 Udal Administrazioa**

LASARTE-ORIAKO UDALA

**Taximetro kontagailua duen turismo ibilgailuetan eskaintzen diren bidaiarien hiri garraio zerbitzuak (hemendik aurrera taxia) arautzen duen ordenantzaren behin-betiko onarpena**

---

LASARTE-ORIAKO UDALA

Iragarkia

Taximetro kontagailua duen turismo ibilgailuetan eskaintzen diren bidaiarien hiri garraio zerbitzuak (hemendik aurrera taxia) arautzeko Ordenantza behin-betiko onetsia izan ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratzen da, Errigemena Lokaleako Oinarrik arautzen dituen Legeko 70.2 artikulua agintzen duena betez, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 65.2 artikuluan aurrikusutako epea iragandakoan sartu da indarrean.

Lasarte-Oria, 2011ko urtarrilaren 28a.—Alkatea. (1164)

Taximetro kontagailua duen turismo ibilgailuetan eskaintzen diren bidaiarien hiri garraio zerbitzuak (hemendik aurrera taxia) arautzeko ordenantza

**I. TITULUA****ARAU OROKORRAK****1. artikulua. Ordenantzaren xedea.**

Ordenantzaren xedea da arautzea taximetro kontagailua duen turismo ibilgailuetan eskaintzen diren bidaiarien hiri garraio zerbitzuak (hemendik aurrera taxia), horretarako lizentzia Lasarte-Oriako Udalak emanda.

Ordenantza hauei aplikatuko zaie: Taxi guztiei, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri garraiorako udal lizentziaren jabe direnei (taxilariak), taxien gidariei Lasarte-Oriako Udalak emaniko lizentziaren bat izan behar dute, eta taxien erabiltzaileei.

Dena den, ordenantza honetan adierazitako ibilbideak Lasarte-Oriako udalerriaren barruan eginikoak izango dira.

**2. artikulua. Definizioak.**

Ordenantzak kontzeptu hauek hartzen ditu bere baitan:

1) Taxi zerbitzuak: Bederatzi lagunentzako lekua duen bidaiarien garraiorako ibilgailuak (gidaria barne) eta tarifa izenez ezagutzen den prezioaren bidez ordaintzen dena.

1) Taxi bidezko hiri zerbitzuak: .....(e)ko udalerrian eskaintzen diren zerbitzuak.

2) Taxi bidezko hiriarteko zerbitzuak: 2. puntuko definizioan sartzen ez direnak.

**3. artikulua. Zerbitzuaren printzipio gidariak.**

Taxi zerbitzuaren jarduera gauzatzea printzipio hauei loturik dago:

- 1) Zerbitzuaren unibertsaltasuna, irisgarritasuna eta jarraitutasuna.
- 2) Erabiltzaileek kalitateko zerbitzua izateko eskubidea, eta lizentziaren jabeek lan baldintza eta diru-sarrera duinak izateko eskubidea.
- 3) Esku hartze administratiboa, zerbitzua eskaintzerakoan kalitate maila egokia izateko beharrezko interes publikoaren bermean oinarrituta.
- 4) Udalaren eta lizentziaren jabeen arteko lankidetzeta, zerbitzua emateko baldintzak hobetzeko. Hala, arreta berezia eskainiko zaio, alorreko elkarten lankidetzarekin, alde batetik, berrikuntza teknologiko egokienak pixkanaka jartzeta sustatzeari, erabiltzaileekin harremanak eta taxi zerbitzuen prestazioa eta segurtasuna hobetzeko, eta, bestetik, taxi irrati batera atxikitzeari.

## II. TITULUA

### LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

#### I. KAPITULUA. IZAERA JURIDIKOA

##### 4. artikulua. Garraio lizentziak eta baimena.

- 1) Lizentzia titulu juridikoa da eta bere jabea gaitzen du ordenantza honetan aipatzen diren hiri zerbitzuak eskaintzera.
- 2) Hiriarteko zerbitzuak eskaini ahal izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko garraio baimena izanik udal lizentziaren jabe direnek.
- 3) Lasarte-Oriako udal lizentziak eta herriarteko zerbitzuak egiteko baimenak jabeari (edo soldatapeko gidariari) aukera ematen dio bakarrik Lasarte-Oriako udalerrian hasten diren ibilbideak egiteko (edo zerbitzuaren bere prestazio bateratuko area edo babes bereziko zona, babes bereziko zonako lankidetzeta akordioetan ezarritakoaren arabera –Lasarte-Oriako udalerria sartzen da– edo prestazio bateratuko areetako akordio puntaletan) edo Lasarte-Oriako udalerrian amaitzen direnak. (edo Lasarte-Oriako udalerria bere baitan hartzen duen prestazio bateratuko area edo babes bereziko zona). Azken kasu horretan, egindako ibilbidea ibilgailuaren ibilbide liburuan jaso behar da.

##### 5. artikulua. Lizentzia motak.

- 1) Taxi zerbitzuaren udal lizentziak «arruntak» edo «egokituak» izango dira. Lizentzia «egokituak» dira batez ere pertsona ezinduei zerbitzua eskaintzera bideratutakoak; gainerakoak, «arruntak» dira.
- 2) Egokitutako lizentziek zerbitzuari ibilgailu egokitua atxiki behar diote, indarrean dauden irisgarritasun arau teknikoen arabera.
- 3) Egokitutako lizentziak xede horrekin eratu eta eman ahal izango dira, egokitutakoaren loturiko izaerarekin. Halaber, jabetza hori aldi baterako izan liteke, jabeak bere borondatez eskatuta eta udalaren baimenarekin, lizentzia arrunten bati lotuta.
- 4) Ez da utziko egokitutako ibilgailuen lizentziak izaera hori gal dezaten, harik eta aldaketa horrek bermatu arte ez dela murrizketarik gertatu taxi egokituen lizentzia kopuruan.
- 5) Egokitutako lizentziaren aldi baterako indarraldia bost urtekoa izango da gutxienez, eta iraupen berdineko

epeetan luza daiteke, jabeak lizentzia «arrunta» izatea eskatu bitartean, indarraldia amaitu baino lehen. Dena den, aldi baterako edozein baimen eten daiteke, «arruntaren» izaera berreskuratuta, baldin eta aldi berean baimentzen bada lizentziaren eskualdatzea edo lizentziari atxikitako ibilgailua aldatzea.

6) Ibilgailu egokituari dagokion lizentziaren jabeak eskatu ahal izango du jabetzaren aldaketa egitea ibilgailu arruntaren lizentziaren jabe batekin, udal baimena lortuta. Kasu horretan, bi lizentzien jabeek lizentziak trukatuko lituzkete.

## II. KAPITULUA

### LIZENTZIAK EMATEA ETA HORIEK ERREGISTRATZEA

6. artikulua. Lizentzia kopurua. Horiek emateko prozedura.

1) Eman daitekeen taxi zerbitzuko lizentzia kopurua dagokion udal organoak zehatz dezake, aplikagarria den araudiaren arabera, eskaini beharreko zerbitzua hobetzea kontuan hartuta.

Dena den, eman daitekeen gehieneko kopurua mugatuta geratzen da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak herriarteko garraio baimenentzat ezarritako gehieneko kuota kopurura.

2) Taxi zerbitzuaren lizentzia kopurua handitu edo murrizteko sustatzen den edozein espedienteak, Udalak ezarritako gehieneko kopuruaren barruan, datu hauek hartuko ditu kontuan:

a) Zerbitzua zein egoeretan dagoen (batez ere, kalitatea eta hedadura) aldaketa egin aurretik.

a) Udalerriaren hirigintza garapena eta jarduera ekonomikoa zein soziala.

b) Garraioa erabiltzea erraztea ezintasunen bat duten biztanle sektoreari, horien integrazioa eta mugikortasuna erraztuta.

Aipatutako espedienteetan txostena eskatuko zaio eskualdeko taxi batzordeari edo horren pareko den Gipuzkoako Lurralde Historikoko organoari. Halaber, entzunaldia eskainiko zaie ordenantza honen barruan sartzen diren taxi arloko kolektiboei.

3) Taxi zerbitzuko udal lizentziak eskumena duen udal organoaren Ebazpen bidez emango dira, horretako deitutako lehiaketa bidez eta lehia askearen eta publizitatearen printzipioak errespetatuta. Lehiaketan, besteak beste, alderdi hauek baloratuko dira:

a) Eskaintza ekonomikoa.

b) Hizkuntzak jakitea.

c) Lizitatzailaren proposamenak, eskaini beharreko zerbitzuaren ezaugarri bereziari dagokienez.

d) Taxi irrati bati atxikitzea edo haren kide izatea.

e) Beste meritu batzuk, beste izangaien aldean izangai bakoitzak zerbitzu hobia eskaintzea eragingo luketenak.

4) Artikulu honetako 4. paragrafoan adierazitako lehiaketan parte hartzeko eta lizentziak eskualdatze kasuetarako, interesatuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Zerga betebeharrak egunean izatea.

- b) Gidabaimena nahikoa izatea, trafiko eta bide segurtasun arloan eskumena duen organoak emana.
  - c) Eragozpen fisiko edo psikorik ez izatea, lanbidea ohiko moduan eskaintzea eragotzi edo zailtzen duenik.
  - d) Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak, agiriak eta beharkizunak eskatuko dira.
- 5) Lizitaziorako izapidetutako espediente txostena eskatuko zaio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Taxi Batzordeari eta entzunaldia eskainiko zaie Gipuzkoako taxi alorreko kolektibo esanguratsueni.

#### 7. artikulua. Lizentziak erregistratzea.

- 1) Eman dituen lizentzien erregistroa eramango du Udalak, eta hor lizentziei eragiten dien gorabeherak idatziko dira.
- 2) Dena den, erregistroan datu eta agiri hauek agertuko dira:
  - a) Lizentziaren jabea eta zenbakia (kasua balitz soldatapeko gidaria), NAren fotokopia eta telefono zenbakia.
  - b) Lizentziari atxikitako ibilgailua, matrikula, marka eta zirkulazio baimenaren fotokopia.
  - c) Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko VT baimena.
  - d) Taxi irrati baten kide izatea.
- 3) Erregistroetan jasotako datuen trataera eta lagapena egitea artxibo administratiboen araudiari eta datu pertsonalen babeserako 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari egokitu behar da.

#### 8. artikulua. Lizentzia kopurua.

- 1) Lizentzia bakoitzak jabe bakarra izango du, une bakoitzean gidari bakarra esleituta eta ibilgailu bakarrari atxikita.
- 2) Pertsona bera ez da inolaz ere lizentzia bat baino gehiagoren jabe izango, ordenantzaren 5. artikuluan arabera haiek kalifikazio desberdinekoak izanik ere.

#### 9. artikulua. Esklusibotasuna.

- 1) Lizentziaren jabeak berak ustiatu behar du lizentzia, erabateko dedikazio eskusiboan, eta ez da bateragarria izango ordaindutako beste edozein jarduerarekin. Udalak edozein unetan eska dezake alderdi hori agiri bidez egiaztatzea erabakitzen den moduan, gorabeherak kontuan hartuta.

*Oharra.* 2002ko urriaren 15eko 243/2002 Dekretuak (Taxiaren erregelamendua) 37. artikuluan xedatutakoaren babesean, erabateko dedikazio eskusiboaren baldintza, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bakarrik eskatuko da. Udallerri horietan baldintza horretatik salbuesteko beharrezkoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Taxi Batzordearen aldeko txostena, dagokion udalak eskatuta (kontuan hartuko dira inguruko gorabehera sozio-ekonomikoak).

Nolanahi ere, eska daitekeen beste dokumentazioren bat bazter utzi gabe, eskusibotasuna dagokion epigrafean autonomoen erregimenean izena eman izanaren agiriaren bidez egiaztatutako da, edo dagokion udal arloak erabakitzen duen eran.

Beharkizun hori ez betetzeak taxiaren udal lizentzia iraungitzea ekarriko du, dagokion espediente izapidetu ondoren.

- 2) Salbuespen gisa, eta dagokion arearen arabera nahikoa frogatutako arrazoiak ematen direnean (alarguntasuna,

jabearen ezintasuna, lanerako ezintasun iragankorra edo ustekabeko gorabeherak zerbitzua berak eskaintzea eragozten dutenean), lizentzia soldatapeko gidaria kontratatuta ustia daiteke –Lasarte-Oriako Udalak emaniko baimena eta gidari egiaztagiria izan behar ditu–.

3) Lizentziaren jabea hilko balitz, gaitzen duen tituluaren oinordekoak lizentzia bere izenean jartzeko eskatuko du, eta eskubidea izango du behin-behinekoz ustiatzeko soldatapeko gidari bat kontratatuta, Udalak baimendu ondoren, baldin eta oinordekoa adin txikikoa bada edo beste diru-sarrera iturririk ez badauka. Baimena iraungita geratuko da gorabehera horiek desagertzen direnean, eta hori frogatu egin beharko da edozein unetan Udalak eskatzen duenean.

Gainerakoan, oinordekoak berak ustiatu behar du benetako dedikazio eskusiboan edo, bestela, lizentzia eskualdatzea eskatu behar du jabea hil den egunetik hamabi hilabete baino lehen.

4) Lizentzia oinordetzan adin txikiko bati esleituz gero, sei hilabeteko epea izango du adin-nagusira heltzen denetik ustiapena berak egiteko, benetako dedikazio eskusiboan, edo, bestela, hura eskualdatzeko eskatuko du.

5) Salbuespen gisa, ordenantza honetan jasotzen ez diren egoera iragankorretan (herentzien izapidetzea). Udalak baimena eman dezake, alegatutako gorabeherak ikusita, soldatapeko gidaria kontratatuta lizentzia behin-behinean ustiatzeko; kasu horretan, baimena alegatutako gorabeheren iraupenera mugako da.

6) Zerbitzua ezin izango da inolaz ere eskaini soldatapekoaren bidez, behin jabeak erretiroa hartuz gero.

7) Justifikatu gabeko arrazoiak tarteko, urte batean zerbitzua eskaintzeari hiru hilabete baino gehiago uzten bazaio, lizentzia iraungita geratuko da, dagokion espedientea izapidetu ondoren, eta Udalak beste esleipen bat egin edo amortizatu dezake, hala iritiz gero, udal administrazioaren ebazpenaren bidez arrazoitutako eta berariaz aitortutako kasuetan izan ezik.

Arrazoizkotzat joko da ibilgailuaren gidariaren lanerako ezintasun iragankorra, lizentziaren jabe izan edo ez. Dena den, lizentziaren jabeak zerbitzua eskaini beharko du soldatapeko gidari batekin ezintasunaren hasieratik 60 egun naturaleko epean, ordenantza honek eta udal ebazpenak eskatutako baldintzak bete ondoren.

Soldatapeko gidariaren lanerako ezintasun iragankorraren kasuan, baimena emango da, salbuespen gisa eta aldi baterako, hura soldatapeko beste gidari batekin ordezkatzeko, Lasarte-Oriako Udalak baimendu ondoren (ordenantza honetan eskatutako baldintza guztiak bete behar ditu). Ordezkapena 60 egun naturalen barruan egin behar da, soldatapeko gidariaren lanerako ezintasun iragankorra hasten den egunetik kontaktzen hasita.

Lizentziaren jabearen lanerako ezintasun iragankorra amaituta edo, bestela, soldatapeko gidariarena, Lasarte-Oriako Udalari jakinaraziko zaio.

#### 10. artikulua. Soldatapeko gidariak.

1) Soldatapeko gidariak.(e)ko Udalak lizentzia jabeai eskatzen dizkien gaitasun profesionalaren baldintza berak bete behar dituzte, eta ez dira sartuta egongo ordenantza honetan eta 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legean (turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarena) eta bere garapen araudian edo horren ordezkuan adierazten diren ezgaitasun edo debekuetan.

2) Lizentziari loturiko soldatapeko gidariaren baimena lortzeko, lizentziaren jabeak lan kontratua aurkeztu behar du, bermatutako soldatu finkoa adierazita (etekin ekonomikoetan izan lezakeen parte hartzea bazter utzi gabe) eta zuritu behar du proposatutako gidaria behar bezala afiliatuta dagoela Gizarte Segurantzaren nahitaezko erregimenetan.

- 3) Lizentzian ezin da soldatapeko gidari bat baino gehiago atxikita izan.
- 4) Soldatapeko gidariak ez dute inolako pribilegiarik edo lehentasun berezirik izango taxi lizentziak emateko prozeduretan.
- 5) Soldatapeko gidari bat kontratatzen denean, hark erabateko dedikazio eskusiboan beteko du bere jarduera.

10 bis artikulua. Gidariaren egiaztatzea.

- 1) Taxi zerbitzua eskaintzeko, gidariak (lizentziaren jabea edo soldatapekoa, ordenantza honen baimentzen duen kasuetan) gidariaren egiaztatzearen jabe izan behar du, eta, hori, gainera, identifikazio txartela izango da.

Gidariaren egiaztatzea Lasarte-Oriako Udalarena da eta lizentziaren jabearen edo soldatapekoen esku geratuko da gordailu gisa, eta Udalari itzuli behar zaio soldatapeko gidari izateko titularitatea edo baimena galtzen denean.

Lizentziaren jabe ez diren taxi gidarien kasuan, egiaztatzea Udalari eskatu behar zaio, baldin eta Udalak baimendu baditu lizentzia zehatz bati atxikitako soldatapeko gidariak. Dena den, egiaztatzea itzuli egin behar da atxikipena amaitzen denean.

- 2) Taxi gidariaren egiaztatzea ibilgailuan eraman behar da.

Egiaztatzean baimendutako gidariaren argazkia eta identifikazioa agertu behar da (jabea edo soldatapekoa), eta baita haren balio epea, atxikitako ibilgailua, lizentzia zenbakia eta lizentziaren jabea. Gorabehera bereziak ere agertu behar dira, hala nola: Egokitutako ibilgailua, eserleku kopurua edo baliozkotasunaren behin-behinekotasuna.

- 3) Taxi gidariaren egiaztatzea iraungi egingo da ebazpen administratiboaren bidez, espedientea izapidetu ondoren egiaztatzen denean urtebeteko epean hiru hilabetez ez dela taxi zerbitzurik eskaini, salbu udal ebazpen administratiboaren bidez behar bezala arrazoitutako eta berariaz aitortutako kasuetan, eta ordenantza honen arabera urraketa administratibo gisa kalifikatzea bazter utzi gabe.

- 4) Taxi gidariaren egiaztatzea lortzeko edo berritzeko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Pertsona fisikoa izatea.
  - b) Beste lizentzia baten jabe ez izatea.
  - c) Zerga betebeharrak egunean izatea.
  - d) Gaitasun probak gainditzea.
  - e) Osasun Zerbitzu Publikoko mediku ofizialaren ziurtagiriarekin egiaztatzea ez daukala lanbidea modu egokian eskaintzea zaildu edo eragozten dion gaixotasun infekzioso eta kutsakorrik edo eragozpen fisiko edo psikikorik.
  - f) BTP gidabaimena izatea, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emana.
- 5) Gidariaren egiaztatzeak bost urterako balioko du, eta epe hori amaitu baino lehen berritu behar da. Berritzeko orduan salbuesita dago gaitasun probak gainditzearen beharrik ez, arrazoitutako udal ebazpena izan ezik, artikulua honetako in fine 1. paragrafoan eta 3. paragrafoan xedatutakoa bazter utzi gabe.

Egiaztatzea ez bada berritzen edo ez bada ikus-onespena egiten gaitzen duten tituluak iraungi egingo dira. Dena den, aipatutako berritzea egiteko beharrezkoa izango da bide administratiboan ebazpen finkoaren bidez ezarritako

diruzko zigorrak ordainduta izatea.

6) Udalak gidariaren egiaztagiria lortzeko gaitasun probak egingo ditu, eskaera egiten denetik bi hilabeteko epean, dagokion udal tasak ordaindu ondoren.

Egiaztagiria lortzeko probetan frogatu behar du ezagutzen dituela taxi zerbitzuaren araudia, udalerrria, zentro ofizialak eta abar. Halaber, proben ehuneko laurogei gainditu behar da, gutxienez.

#### IV. KAPITULUA

##### LIZENTZIAK ESKUALDATZEA

11. artikulua. Lizentzien eskualdakortasuna.

1) Lizentziak eta baimenak eskualdaezinak dira, kasu hauetan izan ezik:

a) Jabea hiltzean, ezkontide alargunaren edo legezko oinordekoen alde.

b) Erretiroa hartzean.

c) A) paragrafoan aipatzen diren ezkontide alarguna edo oinordekoek ezin dutenean lizentzia jarduera bakar eta eskusibo gisa ustiatu.

d) Jabea lanerako ezintasun iraunkorrean gertatzen denean, gaixotasuna dela, istripua dela edo ustekabekotzat jo daitezkeen beste arrazoi batzuk direla. Horretarako, jabeak, egokituz jotzen duen beste edozein dokumentazio eta Osasun Publikoko Zerbitzuak eginiko txostena aurkeztu behar ditu, gorabehera hura egiaztatuz, Udalak eska dezakeen azterketa osagarriak bazter utzi gabe.

e) Lizentziaren titulartasunak hamar urte baino gehiago ditutenean. Tokiko erakundeak baimendu ondoren eskualda daiteke, eta ezin izango da beste lizentzia bat lortu udalerrri berean hamar urteko epean, ordenantza honetan ezarritako inolako eratan.

2) Eskualdatzea Lasarte-Oriako Udalak baimendu behar du, horretarako eskaera egin ondoren; baina, horretarako, erosleak baimenaren jabe izateko ordenantza honetan ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak bete behar ditu.

Eskaera egin zenetik hiru hilabete igaro eta berriazko ebazpena jakinarazi ez bada, ezetsita jo daiteke administrazioaren isiltasuna tarteko. Dena den, udal administrazioak ebazpena eman behar du, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 43. artikuluan ezarritakoa betez.

Behin eskualdatzea baimenduta, hura jakinarazten denetik hilabetea igaro baino lehen, jabeak idatzi bat aurkeztu behar du, jabe izan nahi duenarekin batera, non biek jakinaraziko duten eskualdatzearen eraginkortasuna, jabeak lizentziari uko egin izana eta lizentzia jabea berriari ematea (jakinarazpenak egiteko jabe berriaren datuak eta helbidea emango dira). Azken idatziarekin batera, lizentziaren hautagaiak behar den dokumentazioa aurkeztu behar du, taxi lizentziaren jabe izateko behar diren baldintzak betetzen dituela frogatzeko.

Halaber, jabe berriak adierazi behar du ezagutzen duela Taxiaren Legearen eta horren Erregelamenduaren edukia eta baita ordenantza hau ere, Administrazioak onartutako erakunde batek eginiko ziurtagiriaren bidez.

Eskualdatzeko baimena lortzeko nahiz jabe berria izateko eginiko eskaera izapide bakar batean egin daiteke prozesua laburtzeko. Dena den, atal honetan 2. paragrafoan ezarritako epea aplikatuko da.

Bestalde, jabe berriak eskualdatzailearen prestazioak mantenduko ditu (taxi irratia, ibilgailu egokitua eta abar).

Azkenik, baldin eta jabe berria ez bada taxi irratiren baten kide, bere udalerrian zerbitzua eskaintzen duen hartan erkidetu behar da edo lurralde osoari zerbitzua eskaintzen duen hartan.

- 3) Lizentziak eta baimenak ezin eskualdatu ahal izango dira, Udala eta Foru Aldundia, hurrenez hurren, haiek iraugitzeko edo aldi baterako eteteko prozedura izapidetzen ari badira.
- 4) Eskualdatutako lizentziari dagokion ibilgailua aurretik esleituta zeukan bera izan daiteke, lizentziaren hartzaileak, aldi berean ibilgailu hura erosten duenean, edo, jabe berriak jartzen duen beste bat izan daiteke, ibilgailuak ordezkatzeko baldintzak betetzen badira, behintzat. Egokitutako ibilgailuari dagokion lizentzia denean, haren eskualdatzeak ez du ekarriko, inolaz ere, egokitutako taxi kopurua murriztea.
- 5) Dena den, ezinbestekoa izango da Udalak lizentzia eskualdatzea baimentzeko, alorreko legerian tipifikatutako urraketaren batengatik bide administratiboan finkoa den ebazpenaren bidez ezarritako diruzko zigorrak ordaintzea, urraketak lizentzia horren jabeek eginikoak direnean.
- 6) Lizentziak ezingo dira eskualdatu Udalak modu ofizialean jakiten duenean haiek organo judizial edo administratiboak bahitu egin dituela.

## V. KAPITULUA

### LIZENTZIAK IRAUNGITZEA

12. artikulua. Lizentziak iraugitzea eta bertan behera uztea.

- 1) Lizentzia iraugi egiten da jabeak uko egin diolako, baliogabetu delako edo iraugi delako, 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legean (turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarena) eta hori garatzeko Erregelamenduan ezarritako erregimenaren arabera.
- 2) Araudi horretan ezarritakoz gain, iraugi egiten da baliogabetzen denean:
  - a) Lizentziaren oinarritzko baldintzak ez betetzean.
  - b) Behin eta berriz urraketa oso larriak egiten direnean edo jarritako zigorra ordaintzen ez denean. Ondorio horietarako, ulertzen da urraketa behin eta berriz egin dela, urraketa egin baino hamabi hilabeteetan, urraketaren arduraduna, ebazpen finkoaren bidez, zigortua izan denean oso larrizat jotzen den urraketa batengatik.
  - c) Gaitzen duten tituluen ikus-onespena urtebetez egin gabe izateagatik. Epe hori ikus-onespena egiteko epea hasten denetik hasten da kontatzen, eskaera ez egitea jabeek egotzi ezin daitekeenean izan ezik.
  - d) Egokitasun arrazoiak tarteko. Kasu horretan, lizentziaren jabeak Lasarte-Oriako Udalak ezarritako kalte-ordaina jasoko du, merkatu azterketetan oinarritutakoa eta alorreko elkarte esanguratsuen parte hartzearekin ezarritakoa.

## III. TITULUA

### IBILGAILUAK

#### I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

13. artikulua. Lizentziari atxikitako ibilgailua.

- 1) Lizentziaren jabeek ibilgailu bat atxiki behar diote lizentziari, eta ibilgailua zerbitzua eskaintzeko erabili ahal



izatea Udalak baimendu behar du.

Ibilgailu horiek ordenantzak aipatzen dituen zerbitzuak eskaintzeko erabiliko dira eta han adierazitako zehaztapenekin. Debatua dago bestelako xede publikoetarako edo profesionaletarako erabiltzea, Udalak arazoitutako eta oinarritutako berariazko baimena izan ezik.

2) Udal lizentziak zehaztuko du zerbitzuak zenbat lagun eraman ditzaken edo «zerbitzu-leku» dituen (bidaia dezaketen pertsona kopurua, gidaria barne).

Oro har, berariazko beste zehaztasun baten ezean taxi lizentziaren bidezko zerbitzuak bost eserleku izango ditu, eta, gorabehera hori ibilgailuaren fitxa teknikoaren bidez egiaztatuko da. Dena den, lizentzia bakarra izatearen beharra egiaztatuta, salbuespen gisa:

a) Ibilgailu egokituek bederatzi eserleku izan ditzakete, Lasarte-Oriako Udalaren berariazko ebazpenaren bidez, eskualdeko taxi batzordeak txostena egin ondoren.

b) Ordezko energia erabiltzen duten ibilgailuek, deposituak edo bateriak behar duten lekua dela-eta, baimena izan dezakete bost eserleku baino gehiagoko fitxa teknikoa izateko, baina, kasu horretan, zerbitzuak gehienez bost eserleku eskainiko ditu. Gorabehera hori ibilgailuaren fitxa teknikoa aldatuta egiaztatuko da.

3) Udal lizentzia berria eskatzen denean, hura atxikitzen den ibilgailua ezin izango da bi urte baino zaharragoa izan lehen matrikulaziotik kontatzen hasita, edozein herrialdeetan inskribaturik dagoelarik ere. Denbora muga hori ez da aplikatuko lizentzia atxikitako ibilgailuarekin batera eskualdatzen denean.

4) Atxikitako ibilgailuei udal azterketa egingo zaie atxikipena egin aurretik, zerbitzuari eta hori arautzen duen araudiari egokitzen diren frogatzeko.

Egokitzapen azterketa atxikipena egin aurretik egin daiteke edo udal lizentzia indarrean dagoen edozein unetan. Hala, hori egitea jabeari eskatuko zaio eta epe bat emango zaio ikuskapena udal bulegoetan edo horretarako adierazten den lekuan egiteko.

5) Lasarte-Oriako Udalak baimena eman dezake ibilgailuaren barruan edo kanpoan publizitatea kontratatzeko, haren itxura eta edukia onartuta, eskualdeko taxi batzordeak txostena egin ondoren.

## II. KAPITULUA

### ATXIKITAKO IBILGAILUA ALDATZEA ETA ESQUALDATZEA

14. artikulua. Aldatzea. Ordezko ibilgailua.

1) Lizentziaren jabeak hari atxikitako ibilgailua alda dezake. Horretarako, interesatuak idatziz eskatu behar du nahitaezko udal baimena; eta, baimena emango da baldintza teknikoaren egokitasuna eta zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den dokumentazioa zuzen dagoela egiaztatu ondoren.

2) Ibilgailuak istripua edo matxura edo bestelako ustekabeko gorabeherak izanez gero, atxikitako ibilgailuaren zerbitzua eskaintzea eragozten dutenak, jabeak zerbitzua eskaintzen jarrai dezake, egoera iragankorrak irauten duen bitartean, lizentziari atxikitako ibilgailuaren antzeko ezaugarriak dituen eta indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen gainerako baldintzak betetzen dituen ibilgailu batekin.

Horretarako, Udalean aurkeztu behar du berariazko baimen eskaera, ordezko ibilgailua erabili behar izateko izandako salbuespenezko gorabeheren egiaztagiriarekin eta ibilgailu horren zirkulazio baimenaren kopiarekin batera.

Lizentziari hasieran atxikitako ibilgailua ordezkatzen duenak aldi baterako atxikitakoaren izaera izango du. Egoera iragankor hori hiru hilabete baino gehiago luzatzen bada, eskaera berria egin eta Udalaren berariazko ebazpena beharko da.

Behin-behinekoz ordezkatzeari behartu zuten gorabeherak gaindituta, lizentziaren jabeak Udalarari jakinarazi behar dio, hamar egun naturaleko epean, berriz zerbitzua eskaintzen hasi dela lizentziari hasieran atxikitako ibilgailuarekin, eta ordezkari ibilgailua baja emanda geratuko da lizentziaren atxikipenetik.

15. artikulua. Ibilgailua eskualdatzea.

Udal lizentziari atxikitako ibilgailua «inter vivos» eskualdatzen bada, hura baliogabetu egingo da, baldin eta, lizentziaren jabeak, aldi berean, lizentziari beste ibilgailu bat ez badiu atxikitzen, Administrazioak aztertu eta baimendu ondoren.

### III. KAPITULUA

#### IBILGAILUEN BEREIZGARRIAK

16. artikulua. Bereizgarriak.

Edozein bereizgarri, plaka eta matrikula Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoari egokituko dira.

### IV. KAPITULUA

#### IBILGAILUEN EZAUGARRIAK

17. artikulua. Ibilgailuen ezaugarri fisikoak.

- 1) Udalak baimendu behar du erabiltzaileari edo zerbitzua eskaintzeko erari eragiten dion ibilgailuen edozein ekipamendu berezi.
- 2) Taxi zerbitzuen lizentzietatik atxikitako ibilgailuek egoera onean egon behar dute, seguruak izan dira, behar bezala funtzionatu eta garbi egon behar dute, kanpotik nahiz barrutik.

Dena den, indarrean dagoen legeriak jasotzen dituen ezaugarri guztiak bete behar dituzte, zehazki, Turismo ibilgailuetako bidaiarien herri barneko eta herriarteko garraio publikoari buruzko Legearen Erregelamenduan adierazitakoak.

- 3) Zehazki, ibilgailuek baldintza hauek bete behar dituzte:
  - a) Ibilgailuak barrutik dituen gutxieneko neurriak eta ezaugarriak, eta eserlekuak, zerbitzuaren erabiltzaileari segurtasuna eta erosotasuna eskaintzeko behar bezalakoak izango dira.
  - b) Karrozeria itxia izango dute, atek oso irisgarriak (gutxienez lau) eta 330 litro baino gehiagoko maletategia.
  - c) Aurreko eta atzeko eta leihotxoko kristalak gardenak eta hautsi ezinezkoak izango dira, eta berariaz debekatzen da haiek erabat edo zati batean estaltzea.
  - d) Ibilgailuen tapizatua egoera onean egongo da, barrualdeari garbitasun eza eta zaintza txarraren itxura emango lioken narriadura, adabaki edo bestelako kalterik gabe; eta ahaleginduko da hura kolore batekoa izatea, eta ez dira erabiltzen utziko desgokiak direnak, haien kalitatea eta marrazkia tarteko.
  - e) Barruan argiak izango dituzte –su-itzalagailua ere izango du– eta aire girotua edo klimatizagailua.
  - f) Mekanismo egokia izango du erabiltzaileak leihotxoak nahi duenean irekitzeko.
  - g) Zorua erraz garbi daitekeen goma edo beste material batez estali daiteke, ondo erantsita eta urradurarik gabe.

4) «Egokitutako» edo aldi baterako «egokitutako» lizentziek ezinduentzako egokitutako ibilgailu bat izango dute atxikita, garraioaren irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Egokitutakoa gisa gaitzen duten ezaugarriak ezin izango dira aldatu ibilgailua zerbitzuan dagoenean, .....(e)ko Udalaren berariazko baimenik gabe.

Egokitutako edo aldi baterako egokitutako lizentziarekin zerbitzua eskaintzen duen ibilgailuak terminal mugikorra izango du, eta haren zenbakia, zerbitzuari atxikia, Udalarari jakinaraziko dio jabeak. Zenbaki hori ezagutzera emango da taxi egokituko zerbitzuan erabiltzeko, bidezkotzat jotzen diren baldintzetan. Lizentziari atxikitako edozein telefono zenbakiren aldaketa Udalarari jakinarazi behar zaio.

5) Taxi zerbitzura atxikitako ibilgailuak Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudiak jasotzen dituen baldintzak bete behar ditu, lege mailakoak zein erregelamendu mailakoak, eta zirkulazioari buruzko gainerako araudiak, bereziki, haizetako-garbigailuei, atzerako ispiluari, kanpoko argiei eta abarri dagokienez.

## V. KAPITULUA

### UDAL AZTERKETAK ETA IKUSKATZEAK

18. artikulua. Aurre azterketak, ohikoak eta apartekoak.

1) Ez da zerbitzuan ibilgailurik jarriko udal baimena izan gabe. Horretarako, lehenengo, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak (IAT) eta Lasarte-Oriako Udalak aztertuko dute, segurtasun, zaintza eta dokumentazioari dagokienez.

2) Zerbitzuari atxikitako ibilgailuei indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen aldizkako azterketan egingo zaizkie eta baita .....(e)ko Udalak eskatutako aparteko guztiak.

Azterketak gainditzen ez dituzten ibilgailuek ezin izango dute zerbitzua eskaini, antzemandako akatsak konpondu arte, eta hori horrela dela udal ikuskaritza zerbitzuek baieztatu arte.

19. artikulua. Udal ikuskaritzaren betebeharra.

1) Ikuskaritza ofizioz egingo da edo interesatutako erakunde edo pertsona fisikoak eginiko salaketaren ondorioz.

2) Udal ikuskatzaileek herri-agintariaren izaera izango dute, dagozkien eskumenen barruan jarduten badute, eta bere lana egiteko erabateko independentzia izango dute. ....(e)ko Udalak bere antolaeraren arabera erabakiko du zein udal langilek beteko dituen ikuskatzaile lanak. Dena den, udaltzaingoko agente guztiak zerbitzuen ikuskatzailetzaz hartuko dira, eta ez daukate bere izaera zertan aurkeztu beharrik lizentziaren jabeari edota soldatapeko langileari.

3) Nolanahi ere, bere lana modu eraginkorrean betetzeko, udal ikuskaritzak laguntza jaso dezake udaltzaingoaren aldetik, beste gorputz eta segurtasun indarren aldetik eta beste administrazioen ikuskaritza zerbitzuen aldetik.

4) Taxi lizentzien jabeek eta soldatapekoek erraztu egin behar dute behar bezala identifikatutako udal ikuskatzaileek ibilgailua eta dokumentazioa aztertzeko egin beharreko lana, ordenantza honen eta aplikagarria den legezko eta erregelamenduzko araudiaren arabera nahitaezkoa denean.

## IV. TITULUA

### ZERBITZUA ESKAINTZEA

## I. KAPITULUA. -ZERBITZUA ESKAINTZEKO BEHAR DIREN AGIRIAK

### 20. artikulua. Ibilgailuen agiriak.

1) Ordenantza honek arautzen duen zerbitzua eskaintzeko, taxi ibilgailuek ondorengo dokumentazioa izan behar dute:

#### 1.1. Ibilgailuari dagokionak:

- a) Zerbitzu publikoko plaka.
- b) Ibilgailuaren zirkulazio baimena.
- c) Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.
- d) Taximetroaren egiaztapen kartila, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak emandakoa.
- e) Lizentzia eman izanaren udal ebazpena eta herriarteko zerbitzuak ematea gaitzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren garraio baimena.

#### 1.2. Gidariari dagokionak:

- a) Gidariaren egiaztageria, lizentziaren jabe gisa edo soldatapeko gisa.
- b) Gidabaimena, gidarien erregelamendu orokorrak eskatutako motakoa, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak eginikoa.

#### 1.3. Zerbitzuari dagokionak:

- a) Erreklamazio liburua eta fakturen taloitegia, Udalak ezarritako diseinuaren arabera (lizentziaren zenbakia inprimatuta eramango du).
- b) Taxiaren Euskal Legearen, horren Erregelamenduaren eta ordenantza honen aleak.
- c) Tarifa ofizialen taula bi hizkuntzetan (euskara eta gaztelania). Udalak emaniko taula hori erabiltzaileen eskura egongo da eskatuz gero.
- d) Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudia, erregelamendua eta zirkulazio arloan indarrean dauden gainerako xedapenak.
- e) Osasun-establezimenduen, polizia-etxeen, suhiltzaileen eta larrialdiko gainerako zerbitzuen helbideak, eta baita zentro ofizialeena ere.
- f) Lasarte-Oriako udalerriaren plano eta kale-izendegia.
- g) Ibilbide liburua eta hor idatziko dira egindako ibilbide guztiak eta bakoitza, eta baita kontratuaren datu esanguratsuenak ere.
- h) Ibilgailuaren fitxa teknikoa (ibilgailuak jatorrian 5 eserleku izango ditu).
- i) Kasu berezietan, hala nola, ibilgailuak leku gehiago behar duenean egindako egokitzapenak edo antzekoak (egokitutako ibilgailuak edo gasa edo ordezeko energia jartzeko eraldatutako ibilgailuak, esate baterako), jatorrizko fitxa teknikoak 5 eserleku baino gehiago izan ditzake; dena den, aldatu egin behar da egindako egokitzapenaren arabera eta, azkenean, beti 5 eserleku izango ditu.
- j) Ezinduentzako egokitutako ibilgailuen fitxa teknikoa eta homologazioa. Horiek 9 eserleku izan ditzakete gehienez, eskualdeko taxi batzordeak txostena egin ondoren.
- k) Nahitaez eman beharreko tiket emailearen dokumentazioa.

- l) Taximetroaren dokumentazioa.

## II. KAPITULUA

### GERALEKUAK

#### 21. artikulua. Geralekuak.

- 1) Udaleko dagokion areak ezarri, aldatu eta kenduko ditu taxi zerbitzuko ibilgailuentzako geralekuak, alorreko elkarte esanguratsuak eta udal lizentzien jabeak entzun ondoren.
- 2) Geralekuek zerbitzu jarraitua eskainiko dute, dituzten ezaugarriak direla-eta ordutegi zehatz baten funtzionatzen dutenak izan ezik (egoera hori geralekuko zutabea adieraziko da).
- 3) Udal lizentzien jabe guztiak egunero joan behar dira geralekura edo geralekuetara, atsedean egunetan, oporretan edo eskatzen den moduan arrazoibidea egiaztatzen denean izan ezik.

Horretarako, Udalak Alkatezaren Dekretu bidez zerbitzua ematea antola dezake, geralekuetan edo geralekuan nahitaez egon beharreko txanda ezarrita eta eguneko edota gaueko guardia nork egin behar duen adierazita edo zerbitzua eskaintzea bermatuko duen beste edozein sistemaren bidez.

#### 22. artikulua. Zerbitzua eskatzea.

- 1) Zerbitzuan dagoen taxia libre dagoenean gidariak zerbitzua eskainiko du erabiltzaile batek eskatuz gero inolako aitzakiarik gabe, hurrengo paragrafoan adierazitako salbuespenetan izan ezik.
- 2) Zerbitzua ez emateko salbuespenak:
  - a) Zerbitzua legez kanpoko zerbaitetarako bada.
  - b) Zerbitzuaren eskatzaileek ordena publikoko indarrak atzetik dituztenean.
  - c) Ibilgailuaren eserlekuak baino jende gehiago eramateko eskatzen denean.
  - d) Zerbitzua eskatzen duena edo harekin daudenak mozkortuta edo estupefazianteekin intoxikatuta daudenean, bere bizitza edo osotasun fisikoa arrisku larrian edo berehalakoan egotean izan ezik.
  - e) Zerbitzuaren eskatzaileak edo horrekin doazenek edo horiek daramatzaten fardelek, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta, ibilgailua zikindu edo kaltetu dezaketenean.
  - f) Zerbitzua bide ibilgaitzetan eskaini behar denean eta gidariarentzat, bidaiarientzat edo ibilgailuarentzat arrisku larria dagoenean.

Kasu horietan, gidariak nahiz erabiltzaileak Udaltzaingoa agertzea eska dezakete, ukoaren arrazoiak egiaztatzeko.

- 3) Erabiltzailea ezindua izanik taxi arrunta eskatzen duenean, gidariak uko egin dezake zerbitzua eskaintzeari, ezintasun hori alegatuta.

Zerbitzuan dagoen taxiaren gidariak garraiatzen duten ezinduei laguntza eskainiko die ibilgailura igotzerakoan eta jaisterakoan, eta baita haur-kotxea behar duten hurrekin doazen bidaiariei ere. Halaber, fardelak kargatzen lagunduko dute eta baita erabiltzaileek mugitzeko behar dituzten gurpil-aulkia eta haur-kotxea kargatzen ere. Gainera, lagundu egingo dute ibilgailuan kokatzen eta lotura elementuak jartzen (euskarriak edota segurtasun uhala).

Behar bereziak dituzten erabiltzaileen kasuan (haurrentzako euskarriak eta abar), gidariak eskain ahal izan die denboraz jakinarazten bazaio behintzat. Ezinezkoa denean, erabiltzaileari jakinarazi eta zerbitzua eskaintzeari uko egin diezaioke.

Erabiltzaileak ikusteko ezgaitasun larria duenean, taxi gidariak laguntza eskainiko dio ibilgailura igotzeko eta handik jaisteko, eta zerbitzua zein leku zehatzetan amaitu den adieraziko dio eta bere helmugara oinez iristeko zein norabide hartu behar duen eta zein ibilbidea egin behar duen jakinarazi.

4) Zerbitzua emateari uko egitea Lasarte-Oriako Udalari jakinarazi behar zaio (Udaltzaingoa), lekua, eguna eta ordua adierazita. Udaltzaingoa agertzea ere eska daiteke, ukoaren arrazoiak egiaztatzeko.

Nolanahi ere, erabiltzaileak eska dezake ukoa ibilgailuaren erreklamazio liburuan idaztea.

### 23. artikulua. Zerbitzuaren ibilbidea.

Erabiltzaileak zerbitzua emateko egokitzat jotzen duen ibilbidea hauta dezake. Hautaketarik egiten ez badu, gidariak biderik motzena hartuko du, kontuan hartuta egin beharreko distantzia eta ibilbidean bidaia atzera dezaketen gorabeherak.

### 24. artikulua. Erregaia kargatzea.

Erregaia ez da kargatuko zerbitzua eskaintzerakoan, bidaiariak berariazko baimena ematen ez badio behintzat.

### 25. artikulua. Gauzak edo animaliak garraiatzea.

1. Ibilgailuak ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak bakarrik eskainiko ditu. Debeke dago erabiltzea irabazizko xede pertsonaletarako edo bidaiarien garraiorako zerbitzu publikokoak ez diren beste edozein gauzetarako.
2. Taxi lizentzien gidariak bidaiariak daramatzaten fardelak onartuko dituzte, maletategian sar daitezkeen heinean, kalterik sor ez dezaketenean edo edukia dela-eta, indarrean dauden legezko edo erregelamenduzko xedapenak urratzen ez dituztenean.
3. Erabiltzailea ikusmen ezindua denean, bere txakur-gidaria ibilgailuan onartu behar da, betiere, 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarenak, 4. artikuluan ezarritako arauak betetzen badira.
4. Salbuespen gisa, taxi gidariak bidaiaririk gabeko mandatuak egin dezakete. Mandatuak kontratatzaile bakar batentzat egingo dira aldi berean eta abiapuntu eta helmuga puntu bakarra izango du, eta ezingo dira bidaiarien garraioarekin batera gauzatu.

Kasu horietan, ikuskatzaileak eskatuz gero, eskura izango ditu zerbitzua eskatu duenaren izen-abizenak eta telefonoa.

Mota horretako enkarguak egitea bidaiarien zerbitzu arrunt baterako eskatzen diren tarifa baldintza berdinak izango dira.

## 26. artikulua. Galtzeak eta aurkitzeak.

Gidariak beren ibilgailuetan garraiatzen dituzten bidaiarien gauzak aurkitu eta horiek itzultzea ezinezkoa balitzaie, Udaltzaingoan utziko dituzte aurkitu dituztenetik bost egun naturaleko epean.

## 27. artikulua. Istripuak eta matxurak.

1. Istripua edo matxura gertatu, edo gidaria agintaritzaren agenteek ohartarazteko edo salatzeko geratuz gero, eta fakturazioa taximetroaren bidez zehazten denean, zerbitzua amaitzean taximetroak markatzen duen prezioetik deskontatuta egingo da zerbitzua etenda egon den denborari dagokion zenbatekoa. Zerbitzua ez bada behar bezala eskaini, materialki ezinezkoa delako edo erabiltzaileak hala erabaki duelako, erabiltzaileak taximetroak markatzen duena ordainduko du, jaso beharreko gutxieneko zenbatekoa kenduta.

2. Erabiltzaileak hala eskatuta, gidariak beste taxi bat jarriko du haren zerbitzura. Kasu horretan, tarifa kontatzen hasiko da erabiltzailea ibilgailua hartzen duenetik.

## 28. artikulua. Ordainketa eta itxaron denbora.

1. Zerbitzua amaitu ondoren ordainduko da.

2. Erabiltzaileak ibilgailua denbora batez uzten badu eta gidaria zain geratzen bada, egindako ibilbideari dagokion zenbatekoa gehi ordu erdiko itxaron denborari dagokiona (hirian) eta ordu bateko itxaron denborari dagokiona (hiritik kanpo) kobratuko da, berme titulu gisa, ordainagiria aurkeztuta. Denbora hori igarota, zerbitzuarekiko lotura bertan behera gera daiteke.

3. Bidaiariak gidariari eskatzen dioenean aparkatzeko denbora mugatu batean itxaroteko, gidariak ordura arteko zerbitzua ordaintzeko eskatu ahal izango dio erabiltzaileari, eta ez du nahitaez zerbitzuarekin jarraitu beharrik izango, itxaron denbora aparkatzeko baimendutako aldi bateko denbora baino txikiagoa ez bada behintzat.

## V. TITULUA

### TARIFAK ETA KONTROL TRESNAK

## 29. artikulua. Tarifa araudia.

1. Ordenantza honek aipatzen dituen hiri zerbitzuak eskaintzea lotuta egongo da indarrean dagoen tarifa araudiari, eta taxilariarentzat eta erabiltzaileentzat loteslea eta nahitaezkoa izango da.

2. Debekatua dago baimendu ez diren osagarriak kobratzea, haien izaera edozein delarik ere.

3. Itsuen zakur-gidarien eta ezinduei laguntzeko bestelakoak garraiatzeagatik ez da inolako osagarririk ordainduko.

4. Hiri tarifak Udalak berrikusiko ditu urtero, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Euskadiko Prezioen Batzordera bidaliko du behin betiko onartzeko.

Horretarako, Udalak proposamena prestatuko du eta elkarte profesionalei entzun ondoren, Prezioen Batzordera bidaliko du. Dena den, elkarte profesionalek ekimena har dezakete arrazoitutako proposamen batekin, eta hori gertatuz gero, eta Udalak onartuta, Prezioen Batzordera bidaliko da Udalak jasotzen duenetik hogeita hamar eguneko epean.

5. Udalak lizentzien jabeen eskura jarriko ditu tarifa ofizialen taularen aleak. Taulak lizentziari atxikitako ibilgailuan eduki behar dira eta zerbitzuaren erabiltzaileek eska ditzakete kontsultatuak izateko.

6. Zerbitzua helmugara iritsitakoan eta hura kobratzean, gidariak ordainagiria emango dio erabiltzaileari, horrek eskatuz gero. Ordainagirian, lizentziaren zenbakiaz gain, zerbitzuaren data, ordua eta zenbatekoa agertu behar dira, eta baita abiapuntua edota helmuga.

30. artikulua. Taximetroa eta tiket emailea.

1. Taxi ibilgailuek taximetroa izan behar dute, behar bezala ikuskatua eta zigilatua. Ibilgailuaren barne-aurrealdean kokatuta egongo da, bidaiariak prezioa ikusteko moduan.

2. Taximetroa argizatuta egon behar du zerbitzua eskaintzerakoan, ilunabarretik egunsentira arte.

3. Halaber, tiket emaile bat ere izan behar dute.

31. artikulua. Funtzionamendua.

1. Taximetroa abian jarriko da zerbitzua abiatzerakoan hiri nahiz herriarteko ibilbideetan, eta fakturazioa onartutako tarifetan ezarritako prezio finkora egokituko da.

2. Dena den, herriarteko ibilbideetan fakturazioa prezio adostuekin kontratatu daiteke.

3. Zerbitzua eskaintzerakoan taxi ibilgailuan erabiltzaileari egotzi ezin zaion istripu, matxura edo bestelako gorabeheraren bat gertatuz gero, zerbitzua amaitutakoan taximetroan markatzen duen preziotik deskontatu egingo da zerbitzuaren eskaintza etenda egon den denborari dagokion zenbatekoa.

32. artikulua. Taximetroaren azterketa arrunta.

1. Taximetro guztiak urtero aztertu ditzake Udalak, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak egin dezakeen azterketa edo ikuskapena bazter utzi gabe.

2. Lizentzien jabeek zuritu egin behar dute Eusko Jaurlaritzak egindako azterketa nahiz Udalak egindakoa gainditu izana, ikuskatze zerbitzuek edo Udaltzaingoa eskatutakoan.

33. artikulua. Taximetroaren aparteko azterketa.

Udalak edozein unetan agindu eta egin dezake taximetro guztien edo batzuen azterketa, nagusiki alderdi hauek egiaztatzeko:

1. Aparatuak bidaiaren prezioaren zenbatekoak argi eta zehatz markatzen dituela, indarrean dauden tarifa ofizialen arabera, bai egindako ibilbideengatik eta itxaron denboragatik, bai eta, bereizita, eskainitako zerbitzu osagarriengatik, baimenduta badaude behintzat.

2. Zigilu ofizialen egoera.

3. Aparatuak ez dezala izan kaxa kolpatua, behartua edo manipulatua izan denaren itxura ematen duen zulorik, ez golperik ez eta seinalerik ere.

34. artikulua. Akatsak.

Urteroko azterketa dela edo aparteko azterketa dela edo partikularren baten salaketa dela, akatsen bat antzeman bez gero taximetroaren kokapenean, funtzionamenduan edo beste baldintzaren batean, ibilgailua zerbitzutik kenduko da berehala, eta ez da zerbitzua eskaintzen hasiko ahalik eta akatsa antzeman duen agintaritzak edo udal zerbitzuek akatsa konpondu izanari onarpena eman arte.



## VI. TITULUA

### ESKUBIDEAK ETA BEHARKIZUNAK

#### 35. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Taxi zerbitzuen erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

1. Ezagutzea lizentzia zenbakia eta zerbitzuei aplikagarri zaizkien tarifak.
2. Fardelak garraiatzea, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
3. Ordainagiria edo faktura jasotzea, prezioa, zerbitzuaren abiapuntua eta helmuga eta zerbitzuaren jabearen lizentzia zenbakia adierazita. Ordainagiria Udalak ezarritako ereduari eta numerazioari egokituta egon behar du.
4. Zerbitzua eskaintzeko egokitzat jotzen duen ibilbidea aukeratzea, ordenantza honetako 23. artikuluko aurreikuspenen arabera.
5. Gidariari ez erretzeko eskatzea.
6. Zerbitzua higiene eta zaintza baldintza egokiak dituen ibilgailuan jasotzea.
7. Ibilgailuari modu erosoan eta seguruan sartzea. Mugitzeko zailtasunak dituzten erabiltzaileek eta hurrekin doazenek zerbitzua eskaintzen duten gidarien laguntza jasoko dute ibilgailua hartzerakoan eta handik jaisterakoan eta, halaber, lagundu egingo dute gurpil-aulkiak edo haur-kotxeak ibilgailuak horientzako daukan lekuan jartzen.
8. Ibilgailu barruko argia pizteko eskatzea, hara sartzerakoan nahiz handik jaisterakoan, eta baita zerbitzua ordaintzerakoan ere.
9. Ibilgailura igotzea nahiz ibilgailutik jaistea, pertsonen, zirkulazioaren eta ibilgailuaren segurtasuna nahikoa bermatzen den lekuetan.
10. Zakur-gidariarekin edo txakur laguntzaileekin joatea, ezinduen kasuan.
11. Gizalegez tratatua izatea.
12. Egokitzat jotzen dituen erreklamazioa aurkeztea, taxiko erreklamazio liburuan nahiz Lasarte-Oriako Udalean. Erreklamazio liburuak kalkagarri diren hiru inprimaki izango ditu: Bat Administrazioarentzat, bestea, garraiolariarentzat eta, hirugarrena, berriz, erabiltzailearentzat. Erabiltzaileak erreklamazio egin ondoren, zerbitzuaren jabeak Udalera bidaliko du haren kopia 30 eguneko epean.

#### 36. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak.

Erabiltzailearen betebeharrak:

1. Zerbitzua ordaintzea, indarrean dagoen tarifa erregimenaren arabera.
2. Portaera zuzena izatea eta ibilgailua gidatzea eragotzi edo oztopatu gabe, eta arriskurik ez sortzea, gidariari, ibilgailuari edo zerbitzuarekin zerikusirik ez duten hirugarren pertsonen.
3. Ibilgailuaren elementurik ez manipulatzeko, ez hausteko eta ez hondatzeko.
4. Gidariak zerbitzu hobe bat emateko emandako jarraibideak errespetatzea, betiere, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskubideak urratzen ez badira behintzat.
5. Adin txikikoekin bidaiatzen duten erabiltzaileek haien portaeraren erantzule izango dira eta eragotzi egingo dute haiek ate-aseguruak manipulatzeko, kristalak igo edo jaisteko, giltzak eta etengailuak eragiteko eta gidariaren arreta galarazi dezaketeko zaratak egiteko.

37. artikulua. Debekuak.

Taxi lizentzien jabeek debekatua dute:

1. Indarrean dauden tarifetan ezarritako prezioa baino handiagoa eskatzea, edozein aitzakia delarik ere.
2. Zerbitzuak eskaintzea, 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarenak, eta aplikagarri diren gainerako araudietan ezarritako bestelako eraren batean.
3. Zerbitzua eskaintzean jatea edo edatea.
4. Taxi gidariak ezin dute eserlekuetan eraman zerbitzuarekin zerikusirik ez duten hirugarren pertsonarik, ikasketa fasean ez bada behintzat, eta, betiere, bezeroak berariaz baimendu ondoren.

Lehen xedapen gehigarria. Zigor erregimena.

2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarenak, aurreikusten duen zigor erregimena aplikatuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. Gidaridun ibilgailuen errentamendu berezia.

1. Gidaridun ibilgailuen errentamendu bereziko jarduera egiteko, horretarako bideratu nahi den ibilgailu bakoitza gaitzen duen baimena lortu behar da. Gipuzkoako Foru Aldundiak emango du, Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako taxi batzordeak txostena egin ondoren.
2. Baimen hori lortzeko beharrezko da baimena izatea udal lizentziaren eta turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoko zerbitzua eskaintzea gaitzen duena; eta baldintza hauek bete behar dira:
  - a) Errentamendu bereziko jarduerara bideratuko ibilgailua izatea, eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Foru agindu bidez ezarritako ezaugarriak bete behar ditu (zilindrada, altuera, neurriak, barne ekipamendua, maletategia, klimatizazio sistema eta komunikazio sistemak) edo, bestela, ibilgailu historikoa izatea, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituen.
  - b) Errentamendu bereziko jarduerara bakarrik bideratutako eta jendeari irekitako lokala edo bulegoa izatea, lokalak edo bulegoak irekitzeko legeak ezarritako baldintzak beteta.
3. Gidaridun errentamendu bereziko zerbitzua eskaintzea bateraezina izango da turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio zerbitzu arrunta eskaintzearekin.
4. Gidaridun ibilgailuen errentamendu bereziko zerbitzua baimena helbideratuta dagoen udalerrian kokatutako errentatzailearen bulegoetan edo lokaletan kontratatu behar da, eta ibilgailuan eraman behar da kontratuaren egiaztagiriaren kopia. Kontratazio aurrez aurre nahiz edozein komunikazio sistemaren bidez egin daiteke (telefonoa, faxa, posta elektronikoa eta abar).
5. Ibilgailu horiek ezin dira bide publikoan egon eta bide publikoan ibili bezero bila; halaber, ezin dute inor hartu aurretik zerbitzua kontratatu ez badu behintzat.

Lehen xedapen iragankorra. Ordenantza hau indarrean sartzen denean gidariaren egiaztageria lortzea.

1. Ordenantza hau indarrean sartzen denean, lizentzien jabeek edo soldatapeko gidariak gidari egiaztageriaren jabe egingo dira 10 bis artikuluan adierazitako probak egin beharrik gabe.

2. Egiaztagiria amaitu edo iraungiz gero, 10 bis artikulua aplikatuko da bete-betean, eta, hala behar denean, probak egingo dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Udal lizentziaren jabea eta pertsona juridikoak herriarteko baimena lortzea.

1. Ordenantza hau indarrean sartzen denean pertsona juridiko baten izenean udal lizentziarik eta herriarteko baimenik balego, jabetzarekin jarraitu ahal izango dute. Dena den, ordenantza honetako baldintzak betetzen dituen gidari pertsona fisiko bat atxiki beharko da, eta horrek bakarrik izango du ibilgailua gidatzeko baimena.

2. Lizentzia horiek ezin dira pertsona juridikoei eskualdatu.

Hirugarren xedapen iragankorra. Hiri garraiorako udal lizentzia eta herriarteko baimen bat baino gehiago izatea.

1. Ordenantza hau indarrean sartzean, hiri garraiorako udal lizentzia eta herriarteko baimen bat baino gehiago duten jabeek, jabetzarekin jarraitu ahal izango dute. Dena den, lizentzia bakoitzaren benetako gidariak eskainiko du zerbitzua eta gainerakoak ustiatu egingo dira, prekarioan, soldatapeko gidariaren bidez, ordenantza honetako baldintza guztiak beteta.

2. Nolanahi ere, jabeak ustiatzen ez duen lizentziari dagokion ibilgailua edo soldatapeko gidaria ordezkatzuz gero, lizentzia eman duen Administrazioa itzuliko da modu automatikoan.